

### Bilbon, 1997ko apirilaren 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
 E. Knörr, euskaltzainburuordea,  
 P. Goenaga, idazkaria,  
 J. A. Arana, diruzaina,  
 M. Azkarate,  
 P. Charritton,  
 J. L. Davant,  
 X. Diharce,  
 X. Kintana,  
 F. Krutwig,  
 E. Larre,  
 J. M. Lekuona,  
 B. Oihartzabal,  
 P. Ondarra,  
 J. San Martin,  
 I. Sarasola,  
 J. M. Satrustegi,  
 A. Urrutia,  
 L. Villasante,  
 eta P. Zabaleta  
 euskaltzainak  
 eta  
 J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea  
 eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika bat-  
 zordeidazkaria.

Bilbon, 1997ko apirilaren 25ean, goizeko 10ak eta laurdenetan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bilkurari. Ondoko zutabeen aipatzen diren kideak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute honako kide hauek: P. Altunak, Tx. Peillenek eta Pello Salaburuk.

#### 1. Aurreko agiriak onartzea.

Aurreko hileko bi agiriak, inork oharririk egin ez baitu, ontzat eman dira besterik gabe.

#### 2. Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak ongi etorria egin dio Andres Urrutia euskaltzain berriari bere izenean eta euskaltzain guztienean.

L. Villasante jaunari ere zorionak eman dizkio lortu berri duen Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxaren aurtengo 'Euskadi' sariagatik.

Azkenik, Sarasola jaunari ere eskerrak eman dizkio, agindu bezala, euskaltzain guztiak oparizat jaso berri duten Hiztegiagatik.

#### 3. Hileroko batzarretako lan banaketaz gogoeta.

Ondoren, zerrendako gaien hurrenkera aldatuz, mahaiburuak idazkariari eman dio hitza hileroko bileretan egiten den lanari buruz bere txostena aurkezteko. Proposamena da araugintza lana indartzeaz gainera, Euskaltzaindiaren bestelako lan akademikoei pisu handiagoa ematea. Horretarako batzordeei sarriago eman beharko litzaieke hitza eta baita euskaltzainei ere. Ondorio gisa, bilerak, zenbaitetan behintzat, arratsaldera ere luza-tzea ekarriko du horrek, beti ere agenda egokia prestatuz.

Euskaltzainburuak erantzun dio esanaz bart bildu direla Euskara Batuko batzordearekin eta hauek hitz eman dutela hemendik aurrera hilean bi bider bilduko direla: hilaren bigarren ostegunean eta bilera egun bezperan. Horrela, seiehun bat hitz "ateratzeko" moduan izango direla eta, horrenbestez, hauek "liseritu" beharko dituela Euskaltzaindiak ere bere hileroko batzarretan.

Goiz eta arratsalde lan egiteari ongi iritzi diote bilduek. Kintana jaunak esan du bilera irekiak izango liratekeela urgazleak geureganatzeko bidea. Xarritton jaunak planing-a egitea eta batzordeei hitza ematea azpimarragarritzat jo ditu. Adibidez, ordua dela esan du Ahoskera batzordekoak zerbait esaten has daitezzen, “j”-ren ahoskeraz, esaterako. Bestalde, Euskaltzaindiaren sail bat asko hazi dela uste du, Iker saila, alegia. Ekonomi batzordea ere bai. Baina Jagon saila ez omen da hazi. Gai honetaz ere go-goetatxoren bat egin beharko litzatekeela uste du Xarrittonek.

#### 4. Hizkuntz arauak.

*Exonomastika: Mundu zabaleko uharteak (Jamaika-Zipre) onartzea.*

P. Ondarraren oharrak aztertu dira. *Novaia Zembla* dela eta, *Zembla Berria* deitura onetsi du batzarrak. Horrela joango da, hortaz, zerrendan.

Halaber, *Principe uhartea* deitura onartu da, bitasunetik ihes eginez.

*Puerto Rico* eta *Mallorca*, *Menorca*-ri buruz ere eztabaida luzea izan da. Bozkatu dira biak, bakoitza bere aldetik, eta honako emaitza izan da: *Puerto Rico* idazkerak 18 boto izan ditu alde. *Mallorca*-k, 13. Idazkera horretan gelditu dira, horrenbestez, uharte horien izenak.

*Artxipelago* hitzaren arazoa.

Martxoko bileran hitz honen arazoa airean gelditu zen hurrengo bilera batean erabakitzeke. Corpusean denetik ageri da. Hala ere, nazioarteko forma nagusia *artxipel* dela dirudi eta, horrenbestez, *artxipelago* hitza proposatzen da. Honek, hala ere, ez du esan nahi *uhartedi* hitza ezin erabil daitekeenik.

Eztabaidan zehar, beste proposamen bat sortu da: *uhartedi* eman lehenbizi eta aipatutako ohar horren antzekoa gero. Botoetara jo da. Lehenbizi, batzordearen proposamena bozkatu da. Bost boto lortu ditu. Ondoren, *uhartedi* hitzari lehentasuna ematearen aldeko proposamenaz eskatu zaie iritzia euskaltzainei. Proposamen honek 14 boto lortu ditu. Beraz, *uhartedi* izango da lehen mailako hitza. Dena den, *artxipelago* hitza ere hiztegian A letraren barruan sartu beharko da. Behar diren oharrak behar den momentuan egingo dira.

*Lurralde* hitza ere eztabaidarako utzi zen, ‘tierra’ hitzaren ordain gisa. *Suaren lurraldea* gordetzea proposatzen da. Hori omen da, bere urrian, testuetan dabilena. *Suaren* ala *suzko* behar ote duen ere galdegin da. Satrustegi jaunak dio dudarik ez dela “del fuego” dela. Horrenbestez, *Suaren Lurraldea* onartzen da. Horrek esan nahi du *lurralde* hitzarentzat ere adiera hori onartzen dela.

*Hiztegi Batuko gainazal-garaño* zerrenda onartzea.

Aurkeztutako zerrendari P. Ondarrak eta E. Knörrek egin dizkiote oharrak.

Knörr jaunaren oharrak direla eta, *gaindikza* sartzea ez da onartu. Zerrendan da-goeneko *gaindika* eta *gainezka* jasotzen dira eta horiek oraingoz aski direla pentsatu da.

Bestalde, hitz honek bidea emanda, Zabaleta jaunak ahoz egindako proposamena onartuz, *gainka* eta *gainkatu* hitzei sarbidea ematea ongi ikusi du Euskaltzaindiak.

*Gainera* hitzari buruz oharrean eskatzen dena ez da onartu. *Gainerateko* hitza falta dela dio Knörren oharra. Onartu da. “Ipar. h. gainerako” oharra duela sartuko da.

*Gaineztu* eta *gainordoki* hitzak hurrengo pasaldirako utzi dira.

*Gaitzigarri* sartzeko eskabidea ez da onartu. Batetik, tradizio urria duelako eta, bestetik, jada *gaitzitu* hitza ageri delako zerrendan. Aski litzateke hori. *Gaitzitu* hitzaren sarreran adibide bat eranstea eskatzen du Knörrek. Onartu da eta honako hau izango da adibidea: “Bikarioaren jokoa biziki gaitzitu zitzaion Oxalderi”.

*Gaixo*-ri buruz eskatzen dena jadanik jaso dago zerrendan. *Gaixotegi*-ri buruzkoa, berriz, batzordeak uste du ez dela behar. Oraingoz aski dela forma soila ematea, adieretan sartu gabe.

*Gakotu* hitzarekin batera *gakatu* ere aipatzea onartu da. Baina honako ohar hau eramango luke alboan: “\* e. gakotu”. *Gako*-ri buruzko eskaria ez da onartu.

*Galapan* hitza hurrengo pasaldirako utzi da.

*Galdegin* hitza testu idatzietan baturik ageri omen da. Horrenbestez, *galde egin* idazkera kontuan hartzeko eskaria ez da onartu. *Galdekizun* hitzaren esanahia ezartzeko eskariari ezetz erantzun zaio. Oraingoz dagoen bezala uztea hobe dela, alegia.

*Ganderailu* hitza ere onartu da, honako ohar hauek alboan dituela: “Ipar. h. argimutil. 2. h. kandelario.” Dena den, *argimutil* hitza bera ere sartu ezenez, biak geroko uztea erabaki da, hurrengo pasaldirako.

*Ganga* hitza ere dagoen bezala uztea erabaki da, arkitekturan ez ezik, anatomian ere erabiltzen dela adieraziz.

*Gantzatu* hitza hurrengorako utzi da. *Garaño* hitza berriz, Knörren oharra gorabehera, zerrendan datorren bezala uztea onartu da.

Azkenik, *garaje/garage* hitzaz izan da eztabaida. Botoetara jo da eta hamazazpi izan dira *garaje* formaren aldekoak. Beraz, forma hori dagoen dagoenean agertuko da zerrendan.

Nolanahi ere, arazoa behin eta berriz mahai gaineratzen denez, *g/j-ri* buruzko txosten bat ekarriko da aurki.

Ondoren, zerrendan eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Corpusak ematen duen informazioa kontuan harturik, *gaizpide/gaizbide* bikotearen artean *gaizpide* onartu da.

Ondoren, *ganbara* hitza izan da eztabaidagai. Hitz honetaz idatzizko oharra Knör jaunarena eta P. Ondarrarena izan dira. Iparraldean bi forma nagusi ditu: *ganbera/ganbara*. Hegoaldean, berriz, *ganbara* beste zerbait da. Aurkezten den proposamena da bi formak jasotzea berezko joera piska bat bortxatuz bada ere. Hala onartu da.

*Gar* hitzaren kasuan, *gar/kar* bikotea proposatzen da. Baina irudizko adierarako *kar* forma hobestea onartu da. Horrenbestez, bigarren adierarako “h. kar” oharra erantsiko zaio.

Bestalde, *gara* hitza ere eztabaidagai izan da. Zerrendan ematen den adieraz *gainera*, bigarren bat ematea ontzat eman da. Honela: ‘2. Ipar. \* e. (tren)geltoki’.

*Garaille/garaitzaille* bikotea jasotzea onartu da. Biak emango dira maila berekotzat.

Gero, *galga* hitzaren inguruan izan da eztabaida. Azkenean, honela formulatu da hautua: “Freno, h. galga” jarri ala biak parekotzat eman? Bozkatu da eta biak parekotzat ematearen aldekoak bi boto izan dira. *Freno* hitza baino *galga* hobestearen aldekoak, berriz, 13 boto izan dira. Horrenbestez, *galga* bere horretan utziko da. Hitz honekin batera, azpisarrera gisa, *galga eman* ere jasoko da. Eta *freno* bere lekuan sartu beharko da aipatu oharra ondoan ezarritz.

#### *Hiztegi batuko hurrengo zerrendaren aurkezpena*

Hurrengo bileran aztergai izango den zerrenda (*garandu-gogoangarri*) banatu da eta aurkeztu, eztabaidarako utzi diren hitzak bereziki azpimarratuz. Beti bezala, oharrak aurkezteko epea hilaren 20a artekoa izango da.

#### *4. Baraiaingo Udalaren deialdiaz Nafarroako Epaitegi Gorenak 1997ko otsailaren 20an emandako epaiari buruzko Euskaltzaindiaren adierazpen proposamena.*

Patxi Zabaleta euskaltzainak aurkeztu du Nafarroako euskaltzainen artean prestatutako behin behineko testua. Honi zenbait iruzkin eta ohar egin zaizkio. San Martin jaunak testuaren hasieran Euskaltzaindiari errege dekretuak berak egotzen dizkion egin-kizunak hitzez hitz jasotzea komeni dela esan du. Urrutia jaunak azken paragrafoari gogorregi irizten dio eta aldatzeko eskatu du. Beste zenbait euskaltzainen iritziak entzun ondoren, Zabaleta eta Urrutia euskaltzainen esku utzi da behin betiko testua lantzea (Ikus eranskina). Jadanik jendea Euskaltzaindiaren adierazpen honen zai omen dago eta lehenbailehen zabaltzea komeni dela aipatu da. Euskaltzainburuak euskaltzain nafarrei eskatu die testuaren zabalkundeaz arduratzea. Iruñetik bertatik egingo da prentsa-zabalkunde, zuzendutako testuaren disketea hara helaraziz.

#### *5. Eskuartekoak.*

##### *5.1. Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* izeneko lana helarazi dio Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari.

Euskaltzainburuak Euskaltzaindi osoaren izenean Nafarroako Hizkuntz Politikako zuzendari nagusi den Perez de Viñaspre jaunari eskerrak bihurtzeko proposamena egin du eta hala onartu da.

##### *5.2. EHU-ko Ingeniari Eskolaren gonbitea.*

Ingeniariaren Eskola honek aurtin ehun urte egiten dituela eta gonbitea egin dio Euskaltzaindiari urriko batzarra bertan egin dezan. Euskaltzaindiaren bileraz gainera ekitaldi akademiko bat antolatu nahi dute eskola horretako irakasle izan zen Pompeu Fabraren eta Koldo Mitxelenaen omenez. Euskaltzaindiak aho batez onartu du gonbidapen hau eta hala adieraziko zaie gutunaren sinatzaile agertzen diren unibertsitateko arduradunei (J. A. Legarreta jaunari eta Miren Azkarate andreari).

#### *6. Azken ordukoak.*

Azkenik Euskaltzainburuak EAJ-ko ordezkariekin egindako bileraren berri eman du. Hain zuzen, duela zenbait hilabete, Euskaltzaindia gonbidatu zuen EAJ alderdiak. Atzo gonbitea itzuli zaie eta zuzendaritzako kideek eta alderdi politiko horretako ordezkariak bilera izan dute. Euskaltzaindiaren asmoak, lanak eta egoitza erakusteko parada izan dutela adierazi du euskaltzainburuak.

Bestalde, J. M. Satrustegi jaunak esan du Amadeo Marcoren biografia argitaratu dela eta, ziur aski, Euskaltzaindiari interesa dakiokela aleren batzuk eskuratzea. Haritschelhar jaunak baietz erantzun dio eta, behar bada, euskaltzain guztientzat ere interesgarria izan daitekeela.

*7. In Memoriam Joan Coromines.*

Duela zenbait hilabete hil zen Joan Coromines euskaltzain ohorezkoaren omenezko txostena irakurri du E. Knörr euskaltzainak, filologo handiaren bizia eta lanak eta Euskal Herriarendako eta euskararendako erakutsi zuen jaiera gogoratuz.

*8. Biblioteka zuzendari berriaren aurkezpena.*

Azkenik, Euskaltzaindiak kontratatu duen biblioteka zuzendari berria, Prudentzio Garcia jauna, aurkeztu zaie euskaltzainei. Arana jaunak egin du kontratazio honetarako eraman den prozeduraren laburpen gisako bat eta ondoren euskaltzain guztiek izan dute aukera zuzendari berria agurtzeko.

Eta honenbestez, ordu biak direla, amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak,  
Jean Haritschelhar

Idazkariak,  
Patxi Goenaga